


ROLLS - ROYCE Berlin, Brandt eta Breznev edo jokua iru "B"ren artean

Aste honetako «The Observer» (11-7) astekariak, lehen orrialdean honela hasi du bere artikulua: «RB 211 is dead» (alegia RB 211 deritzan hegazkin-motora hila da). Eta Martxoaren 11-ko prentsak beste hau zekarren: «Rolls-Royce-eneko 4.300 langile, lanik gabe gelditu. Zenbat ondoko asteotan?». Rolls-Royce-ko arazoaren ondorioak, beraz, ez dira hasi besterik egin!

(gaur hegazkinena aipatu dugu) ezin daitezke aurerra eraman liberalismoaren barruan. Liberalismoa ipuin huts bihurtu da. *Nahi-ta-nahiez* behar dira lantegi-mota batzuk «nacionalizatu»; baita, «Concorde»ren arloan ageri denez, «internazionalizatu» ere! Gaurko garaian, hitz batez, liberalismorik ez dago industria-mota horietan. Heath ez da batere sozialista; baina lanik eza ez bultzatuko, hitza esan gabe, «nacionalizatu» egin behar izan du Rolls-Royce lantegia. Ez zuen beste erremedioirik.

Wedgwood-Benn ministro-ohiak berriki esan duenez, Rolls-Royce-k langile bat botatzeak, inguruko beste lau langile gehiago lanik gabe uztea dakar.



«RB 211 motora hila da».

Ez hori bakarrik: «The Observer»-ek dienez, ez da ziur Lockheed-lantegia Rolls-Royce-ren lurjuztea jasaten gauza izango denik!

Rolls-Royce-ren gertaera, horrela, kapitalismoaren krisiaren zantzu nabarmena da; eta ondorio-soka bat ekarriko du atzetik. Bertatik ikertzea merezi du, hortaz.

Jakina denez, Rolls-Royce lantegia hegazkin-motoreen egile zen aspaldi honetan. Rolls-Royce bere bil dotore famatuak ez ziren, aspaldidanik, R.R.-ren kokoa: nork ordain dezake miloi bat peseta, edo gehiago, berebil bat izateko?

Azken bolara honetan Rolls-Royce dirua galtzen ari zen. Eta Eguberri aldean S.O.S. bota zuenean, burua altxatzerik ez zuen somatzen. Breña-Nagusiko gobernua bahitu zizkion 42 milioi esterlinak (7.500 milioi peseta, gutxi gora behera) beharhala «irentsi» zituen; eta beriz ere lehenagoko egoerara itzuli. Hitz batez: Rolls-Royce-k erreka jo zuen.

Zergatik? Hegazkin-gintza osoa, jakina denez, krisi gogorrean dago mundu guzian. Gorago U.S.A.-ko Lockheed aipatu dugu, azkenetan omen. Baina besterik ere ba da larri-larri: Boeing, Douglas, SNECMA, SNIAS, Pratt and Whitney, eta abar. Denak oso gaizki finantzien aldetik, esaten denez.

Gauza agerria da, beraz, hegazkin-gintzak ez daukala gaur bere buruz irauterik: Erresuma-Industria bihurtu, ala hil. Beste hitz batez esateko: ez du irabazkinik uzten; beraz herriak ordain ditzaela gaitzak!

Hegazkin-egile bakar batek gultzen omen dio ongi Frantziaren bere eginkizunak: Marcel Dassault-ek. Baina, jakina denez, Dassault-ek Harmadardetako lanegituen du (%-eko 75-tik gora).

Industria-mota honek, beraz, bi aukera ditu:

- 1) Gobernuari eraginez, gudu-ekonomiako giroa sortzea: hemen edo han «gerratro» baten bidez, behar baino harmada handiagoa bat gordeaz, gobernu militarikoiei guda-hegazkinak salduz, «gudu hotz»-aren bildurrari atxikiz, eta abar. Zenbait aldiz kapitalismoak bide hau aukeratu duela gauza ezaguna da.
- 2) Industria-atal hori gobernuaren eskutian jartzea, eta gaitzak herriaren lepora jartzea (zergak gora, eta abar).


Aukeratu-behar hau berria ez izanagatik ere, oso larria da; eta edonori pentsarazteko bezalakoa. Alegia: gaur hegazkin-gintza eta politika *errotik* daude loturik. Eta ezin-bestean loturik: industria-mota honen EZ DAUKA BESTE IRITENBIDE-RIK. Garestiegi bihurtu da.

Gauza jakina da, hildo beretik, «Concorde» famatua Frantziatik eta Breña-Nagusia *elkarturik* egiten dutela. Bestela ezin zuten. Gauza bera «Airbus» delakoa, eta beste. Ekonomiarren adar batzuk, beraz

Berlindarrak botazioak egin dituzte Senatu berria aukeratzeko. Auetan erabakiko zala uste zan, ia berlindarrak Brandt-en irrikatasuneko politika ausartaren aldekoak ala kontrakoak ziran.

Demokristauak beren armak zorrotzen jardunak genituen sozialisten kontra, «GIZON BERRIAK» eskatuaz Berlinerako. Liberalak, beriz, sozialisten geiegiakieraren moderatzaile bezala agertu zitzaizkigun. Komunistak aldiz, deskontentatu zeudenak eta kontra dagoen garteria sailla bitu nai zituzten beren alde (leenbizioz artzen zuten parte, 18 urtekoek), onela % 5 irrikizko zuten uzteetan eta sartu ahal izan beren ordekaritza bat beinegan Senatuan.

Aufeskunde auek zer eman duten, garbi ikusten da ondoren ezartzen dugun agiri onetan. Brandt-ek ez dauka orainoz geiegiako estuasunik: % 60 berlindarrak baiezkoa eman bai diete daraman politikiari.



Berlingo bi alkateak, zaarra eta gaztea, Brandt eta Schutz.

	1967		1971	
	%	Aulkiak	%	Aulkiak
Sozialistak	56,9	81	50,4	73
Liberalak	7,1	9	8,5	11
Demokristauak	32,9	47	38,2	54
Komunistak	2	—	2,3	—
Besteak	1,1	—	0,6	—

Brandt-en irrikatasuneko politikak, demokristauen moldeak antsi ditu. Politika era berri onek, bere alde BAIKORRAK eta EZKORRAK ditu. Brandt, noski, ongi jabeturik dago oietaz eta ukaldi batez erabaki nai du jokua.

—ALDERIK BAIKORRENA ondan du: politika, merkatu eta industria artuemanak oibetzen Sortalde sozialista erriekin. Erri auek, Alemaniaren teknika eta diru laguntza desiatzen dute; eta Alemaniak ori egitean, bere izena indartzen du.

—ALDERIK EZKORRENA, beriz au da: jokabide orren, ziurtasun eza, «PAKEZKO ELKARBIZITZAREN» joku dialektikoaren barrutian. Ba dakigu joku ortan jokabideak aldakorrek dirala, erreboluzioaren jarrarainak ekartzen dituen kondizio jakien arabera. Dana dala, politika onen leen

ondorenak Brandt-en onerako gertatu dira eta Mosku ez dabil atsegin aundiegiz. Eta Kremlin-ek ekin dio gogor baino gogorrago, Brandt eta onen politikaren kontra. Onela erakusten dute zenbait gertakizun eta azalpenek.

—Washington-en, Wallach periodistak, «ixilka» jaso omen du, «sobietar personalitate» batengandik, Kremlin-ek ez duela asieran bezin interes aundirik dalako OSTPOLITIK edo Sortalderako politiketan. «Berri jaso zutenak», Washington-en sobietarren enbajadore dan Dobrynin-en expainetan ipiñi zituzten itzok leen uean; gero ordea, onen ordekoari, Yuri Voronzer-i, entzunak ote diran esaten da.

—Baña ala dan ala ez, Estokolmotik datozen berrietatik jakin dezakegu. Sueziaiko sobietar enbajadoreak, «Der Spiegel» (Ispillua) aldizkariko berri emaille bati deitu

zion koktel batera, eta zurrut-tartetan zera esan zion: «MOSKUREN ikuspegitik, BONN-en egin dan koalizioko gobernu liberala DEMOKRISTAU GOBERNU DANAK BAINO OKERRAGOA DITEKE-ALA».

—oOo—

Egun auetan ugaritzen ari dira artuemanak Berlin- inguruan. Berlin eta Pankow, bi Alemaniak, Berlinen lau okupatzaileak, artuemanetan daude ia erri-buru orri irribiderik billatzen dioten.

Willy Brandt-ek esana: «SORTALDERAKO GURE POLITIKA, BERLINDIK PASATZEN DA». Eta Berlingo auzia garbitu baiño leen, Willy Brandt-ek ez ditu legetu nai Mostuko eta Varsoviako itunak.

Demokles-en expatapean aurkitzen da gure Brandt. Leonidas BREZNEV eta onen alderdikoez dute estratejiaren arauetan sartzen ote da, Berlingo auzia erabakitzeko taktika? Edo-ta arma au bera erabiliko dute, Berlingo al kate izanaren Sortalderako politika desegiteko?

Baliteke bide-erditik ateratzea. Orduan «modus vivendi» bat moldatuko luteke. Ontan dago kokoa. Zer gertatuko dan, ez dut uste kremlinologorik trebearen ez aurreratuko digutenik. Gertakizuneri adi-adi egon bearko.

J. Artola

MITXELENA
BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA
Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)
Avda. de Francia, 1
— I R U N —

ECHABE

ETXABE'REN
Mueble - Etxea
Fuero'en Enparantza
Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 21

ZARAUTZ

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebizio aragi pilak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOTU AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-Alra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381